

Zeresana emango du



Goraka doan festa

San Sebastian eguna bukatu eta bi astera, Sarriegik sortutako doinuak entzungo ditugu berriro. Oraingoan kaldereroek ekarriko dituzte.

Orreaga Aranburu

Badatoz kaldereroak. Hungariatik Donostiara etorriko dira, Momo erregearen aginduz, inauteriak iragartzera. Lehen konpartsak ostiralean, urtarrilak 31, irtengo dira. Baina festa bi asteburutan jarraituko du, eta hungariarrek hiriko kaleak alaituko dituzte musika, kantu eta pertzen doinuekin.

Sorreratik hainbat gorabehera izan dituen arren, kaldereroen jai goraka doa, eta ia urtero konpartsa bat sortzen da.

Aurten, adibidez, Amara Zaharreko kaldereroak aterako dira lehen aldiz, eta Antiguakoek, zenbait urtez atera gabe egon ondoren, ohitura berreskuratuko dute. Erdialdeko Peña Anastasioko konpartsak, ordea, kale egingo du eta ez da kaleratuko, ez baitute ez astirik ez nahikoa jenderik izan.

1884. urtean hasi ziren pertzagileak Donostian ateratzen. Hasieran, festa otsailaren 2an ospatzen zen: beti, Kande-

Hamabost bat urtetan 13 konpartsa sortu dira hirian

lariaren egunean alegia, jai eguna zen eta. Geroago, otsailaren 2ko jai eguna kendu zuten eta beraz, kaldereroak otsailko lehen asteburuan ateratzen hasi ziren. Urte askotan, konpartsa bakarra egon da, Parte Zaharrekoa, alegia. Duela hamar urte inguru, ordea, ohitura auzotara zabaldu zen eta konpartsa gehiago sortu ziren. Donostiako ohituretan aditu Javier Sadak azaldu digunez, Parte Zaharreko konpartsak jende kopuru mugatua zuen, eta ondorioz, jendeak urteak itxaron behar zituen bertan parte hartu ahal izateko. Horixe izan daiteke, hain zuzen, hazkundearen arrazoieta bat.

Konpartsa berriak plazara

Urteak joan, urteak etorri, gero eta kalderero konpartsa gehiago kaleratzen dira Donostian: hamabost bat urteren buruan, talde bakarra izatetik hamalau izatera igaro gara. Javier Sadaren ustez, hazkundera logikoa da, izan ere, "festa erraza eta merkea da, eta donostiarren izaerarekin bat datorrena". Horregatik, pertzagileen festa gehiago haziko dela uste du Sadak: "Fanfarrea izatea nahikoa da konpartsa osatzeko, jantziak merke lor daitezke eta".

Esan bezala, Amara Zaharreko kaldereroak lehen aldiz kaleratuko dira aurten. Aspaldi piztu zen auzotarren artean konpartsa sortzeko gogoia, baina, hala ere, aurten gauzatu dute proiektua. "Aurreko urteetan berandu ibili ginen prestatu beharrekoak prestatzeko; iaz, azkenean, auzotar talde bat elkartu zen eta aurten ateratzeko apustua egin genuen", esan digu konpartsa arduradun Iñaki Goñik. Mamur aisialdi taldeko, Kir-Kir euskara taldeko eta Donosti Berri eta Haritza elkarteetako kideek sortu dute Amara Zaharreko konpartsa. Bereziki, euskara bultzatzeko ahalegina egingo dute, eta kantua



Zeresana emango du

Javier Sada: «Kalderereroen festa donostiarren izaerarekin bat dator»

euskaraz abestuko dituzte: "Hurrek kantuak euskaraz ikasten dituzte eskoletan, baina gero, helduen mundu erdaldunarekin topo egiten dute askotan; guk horri aurre egin nahi diogu", dio Goñik.

Antiguako konpartsaren kasua bestela-

koa da, garai batean atera ondoren, behertan behera utzi baitzuten ohitura. 1990etik 1993ra bitartean irten ziren Antiguako kaldereroak, eta aurten festa berreskuratuko dute. Hainbat auzotar konpartsan parte hartzeko prest zeudela ikusirik, aurrera jarraitu zuten asmoarekin.

Zaharren berrikuntzak

Festa hau auzoetara zabaltzen aitzindarietako bat Groseko konpartsa izan da, eta gaur egun arrakasta handia du. 80ko hamarkadan sortu zenetik, konpartsak lan handia egin du Donostiako aspaldiko kantuak berreskuratuzeko eta



Iñude eta artzaiak

Ohiturari jarraiki, igande honetan, otsailak 2, ñude eta artzaiak kale-ratuko dira. Kresala elkartekok 12.00etan hasiko dute ibilbidea, Euskal Herria kalean. Konstituzio plazara iristean, ohi bezala, antzezpena egingo dute. Helduek osatutako konpartsa dugu, baina haurrak ere helduen aurrean joaten dira saltoka. Bestalde, Groseko ñude eta artzaiak 11.30etik 13.30era ibiliko dira auzoko kaleetan barrena, Euskal Herria plazatik abiatuta.



Ordutegia

Konpartsa Eguna Ordua Irteera

Aiton ikastola	Urtarrilak 31	14.30	Mandasko Dukea
Zuriola ikastola	Urtarrilak 31	15.00	Indianoene
Ikasbide	Urtarrilak 31	15.00	J. M. Salaberria
Intxaurren ikastola	Urtarrilak 31	15.30	Zarategi
Intxaurren ondoko konpartsa	Otsailak 1	17.00	B. Etxepare
Groseko kaldereroak	Otsailak 1	18.00	J. M. Barandiaran
Amara Berriko kaldereroak	Otsailak 1	18.00	Kofradien plaza
Herrera Aitzako konpartsa	Otsailak 1	18.00	Herrerako plaza
Amara Zaharreko konpar.	Otsailak 1	18.30	San Roke
Pante Zaharreko konpartsa	Otsailak 1	22.00	Fermin Galbeton
Korrikotak	Otsailak 2	11.00	Prim
Antiguako kaldereroak	Otsailak 7	21.30	J. M. Sert plaza
Egiako kaldereroak	Otsailak 8	18.00	Martin Santos
Lorolako kaldereroak	Otsailak 8	18.30	Pilotalekua

ezagutarazteko. Aurten bide beretik jo dute eta gure hiriko hainbat elkarte gastronomikotan aspaldi sortutako ereserkiak berreskuratu dituzte; kantuok La Donostiarra bandak joko ditu, Txofre plazan eskaini ohi duen kontzertuan. Ez da hau izango talde honen berrikuntza bakarra. Izan ere, iaz, Juan Antonio Antero konpartsako arduradunak martxa berri bat sortu zuen Sarriegiren kantuekin tartekatuzko, eta Groseko kaldereroek lehen aldiz joko dute aurten.

Azken urteotan sortutako beste konpartsa bat Amara Berrikoa dugu. Konpartsaren laugarren urtea izango da honakoa. Azken hiru urteetan, Olaeta plazan kanpamendua jarri ohi zuten Amara Berriko pertzagileek, ondoren ibilbidearekin jarraitzeko. Aurten, beriz, Olaeta plazan bukatuko dute jaia. Bertan, oholtza jarriko dute eta konpartsako hurrek koreografia bat dantzatuko dute. Sada izango da Amara Berriko kaldereroen erregina.